



Prensa oharra

VITORIA-GASTEIZ WINE CITY-K ETA EROSKI-K ZAHATO BAT AURKEZTU DUTE BEIRAREN ALTERNATIBA GISA ERABILTZEKO ANDRE MARI ZURIAREN JAJETAN

- "Ez bota la bota" leloarekin, ingurumenerako iraunkorra den ontzi bat aurkeztu dute
- Salgaia 0,50 euro baino ez da kostako, eta biltzen den dirua irabazi asmorik gabeko erakunde baterako izango da
- Proposamen honen asmoa da jarraipena ematea festetako tradizioari beira kenduta

Gasteiz, 2017ko maiatzaren 31.- [Vitoria-Gasteiz Wine City](#) elkarteak eta [EROSKI](#)k plastikozko zahato bat aurkeztu dute gaur goizean, Gasteizko Villasuso jauregian, "Ez bota la bota" leloarekin; birziklagarria eta berrerabilgarria da, Gasteizko Andre Mari Zuriaren jaietan beiraren alternatiba gisa erabiltzeko. 0,50 euro besterik ez du balio, eta salmentan jarriko dituzte horrelako 12.000 ontzi EROSKIk hiriburuan dituen supermerkatu eta hipermerkatu guztietan, datorren uztailen. Biltzen den diru guztia irabazi asmorik ez duen erakunde bati emango diote.

Vitoria-Gasteiz Wine City eta EROSKI elkartu egin dira ingurumen aldetik irtenbide iraunkor bat proposatzeko eta, hala, jarraipena emateko Zeledon hartzeko tradizioari, Andre Mari zuriaren plazan, abuztuaren 4an.

Bestalde, Vitoria Gasteiz Wine City elkarteari ondo iruditzen zaio EROSKIk ekimen honetan parte hartzea; izan ere, dagoeneko Barrika Lasterketan elkarrekin arituak dira. "*Kide ezin hobea iruditu zitzaigun hurbiltasunagatik eta gure lurraldean salmenta puntu gehien duen sarea izateagatik eta oro har jendearen eskura egoteagatik*", esan du Valentin Basañezek, Vitoria Gasteiz Wine City elkarteko lehendakariordeak.

"*EROSKI*kook uste dugu alternatiba ona dela jaietz gozatzeko, eta egokia da Zeledon hartzeko tradizioari eusteko. Era berean, berrerabilgarria eta birziklagarria da, eta, beraz, ingurumenaren iraunkortasunarekin dugun konpromisoa betetzen du", esan du EROSKIren Harreman Instituzionalerako zuzendariak, Josean Yelak.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
XURDANA FERNANDEZ

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)